

2017.03.13
LURRALDE ANTOLAMENDUKO 38. bilerako AKTA
A.G., K.F., X.I., I.A.

Gaiak:

1. Beko kale: Elordiko zelaia

- Irteera berria egitea 300.000€ inguru izango litzake zentzu bakar bat emanaz gero eta 400.000 € berriz, bi zentzuko irteera nahi bada.
- Hiri-lurra izateko aldaketa egiten den bitartean, proiektua idaztea ere martxan jartzeko modua dago. Datorren hileko bileran planoen gainean eztabaidatuko da.
- Terreno txiki bat (Bidegaingoa) erosteko prozedura hasiko da.
- Frontoiaren irisgarritasunarekin batera, hurrengo herri-batzarrean egingo da kontsulta.

2. Frontoiaren irisgarritasuna

- Parte-hartze prozesurako beste aukera bat ere jorratuko da, parketik, aldagelen barrena sarrera egitekoarena, beste 4-ei gehitzeko.
- Lanak egiteko laguntza eskaera egin da.

3. Ur hornidura:

- Hodieria nagusia berritzeko iaz egindako 2. fasean uste baino lan gutxiago eginda eta orain ari dira arrazoiak aztertzen. Ondoren 3, faseari ekingo zaio.
- Baserrietako ur-horniduraren egoera aztertuko da.

4. Natura eta Ingurumena

- Lursailak erosteko beste deialdi publiko bat egingo da.
- Iaz erositako 8 ha-tako sailean pinuak atera zituzten eta egun landaketa berria egiten ari dira egun hauetan. Gastu hauen gehien bat (%80) orain argitaratu berria den baso-laguntzetatik joango da.
- Iaz erositako beste sail batean biodibertsitatea emendatzeko lanak egingo dira eman ziguten dirua gastatuz.
- Udalerriko zuhaitz berezien (habitat zuhaitzak) kartografia aurki

izango dugu

- Saguzarren txostena ia prest dago eta espezie bereziak aurkitu dira.
- Arbelen industria aztarnak aztertu eta balioan jartzeko programan irteera eta hitzaldia egin dira. Aurrerantzean ere antolatuko dira.

5. Hondakin organikoen tratamendua

- Hondakin organikoa herrian bertan kudeatzeko behar den txostena web orrian eta paperean eskura jarriko da. Konpostagailuak jartzeko 12.000 € inguruko gastua izango da. Oraindik norbait kontratatzeko arazo batzuk badira eta eskumenei buruzko kezkek ere argituko dira.

6. Herri bideak:

- Herri bideen inbentario eta azterketa aurten egingo da.
- Herri-bideetako erabiltzaileekin adostasuna lortu da eta ordenantza berria jendaurrean dago.
- Orain mantentze lanetarako dagoen akordioa berritu nahi da. Horretarako, hosto-biltzaile bat erosiko da eta Udalak urtean bitan pasatzea proposatuko zaie, bat ekaina bukaeran, desbrozadora pasatzen denean, eta bestea azaro bukaeran. Horretaz gain, makina erabiltzaileei behar dutenean utziko zaie.
- Aurten biondak jartzeko 12.000 € daude eta beraiekin adostuko da nondik hasi. Bileran Aste Santu ondoren egingo da.
- Laguntza eskaera martxan, Urkiko plazatik errota aldera doan bidea konpontzeko, Urki-Goenako bi baserriei zerbitzua emanaz.

7. Bizikleten gordailua

- Lanak bukatzen, datorren asterako martxan izatea espero da.

8. Urkiko elkarte/aterpea

- Orain hasiko dira sukaldea konpontzen eta literena begiratzen ari gara.

9. URArekin dagoen hitzarmena

- Zuhaiska batzuk botatzekotan dira Intxaurren parean eta Zubingo errekan presa bat eraitsiko dute.

10. Ordenantza berriak:

- Kotxeena: Belenekin hitz eginda, aurrera egitea erabaki da.
- Elordiko zelaiaren erabilera antolatzeko proposamen bat lantzen ari da Belen

11. Beste batzuk:

- Agenda 21-en jarraipena aurki denok ikusteko moduan izango gara, programa orain internet bidez egingoi baita.
- Obra txikiak eta Ibas pareko arazoak bezalako gaien jarraipena egiteko, prozedura berezi bat sotyuko da.